

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

199

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 19koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkararena, «Abadiño-Azpeitia 1 eta 2 zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko linea elektrikoa, 27- 50 euskarrien artean eta Abadiño-Azpeitia 1en Bergara TArako S/l» instalazio elektrikoen aurretiazko eta eraikitzekeko administrazio-baimenak emateko eta horien onura publikoa deklaratzeko dena.

Espedientea: 20-ATY-2024-88.

AURREKARIAK

1.– 2024ko abuztuaren 1ean, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak (helbidea: San Adrian 48, Bilbao, Bizkaia) aurretiazko eta eraikitzekeko administrazio-baimenak, ingurumen-inpaktuaren adierazpena eta onura publikoko adierazpena eskatu zituen, zehazki, «Abadiño-Azpeitia 1 eta 2 zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko linea elektrikoa, 27- 50 euskarrien artean eta Abadiño-Azpeitia 1en Bergara TArako S/l», Bergara eta Elgeta udalerrietan; eta horrekin batera aurkeztu zituen eskabide-orria, proiektu teknikoa, eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakatua, bai eta dagokion ingurumen-inpaktuaren azterlana ere.

2.– Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan (2020-04-24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE) aurreikusitakoa betez, testu horren azken xedapenetako lehenengoan, 1957ko apirilaren 26ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulutik 56. artikulura (2013-12-27ko BOE) ezarritakoarekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin bat etorrituz (2013ko abenduaren 11ko BOE), eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean (2021eko abenduaren 31ko EHAA) aurreikusitakoari dagokionez, jendaurrean jarri zen instalazio elektriko honen proiektua, bai eta eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakatua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa ere.

3.– Horretarako, jendaurrean jartzeko izapidearen barruan, iragarkia honako toki hauetan argitaratu zen: Bergara eta Elgetako udaletxeetako iragarki-oholean, arauzko epean; EHAAn, 2024-11-18an; «El Diario Vasco» egunkarian, 2024-11-18an; «Noticias de Gipuzkoa» egunkarian, 2024-11-18an; eta web orri honetan: (<https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>).

4.– Jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, 2024ko azaroaren 19an, dagokion separata bidali zitzaien Bergara eta Elgetako Udalei, Uraren Euskal Agentziari (URA), Bide Azpiegituretako Sailari –GFA, Telefónica, SA, Nortegas Energía Distribución, SAU, Enagas SA, Red Eléctrica de España, SAU, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia – GFA eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari, proiektuari adostasuna emateko edo aurka egiteko eta, hala badagokio, baldintza tekniko egokiak ezartzeko eskatuz. Eskaera hori 2025eko urtarrilaren 27an berretsi zen.

5.– Proiektuarekiko adostasuna edo aurkakotasuna eskatzeko, eta, hala badagokio, baldintza teknikoak ezartzeko, Uraren Euskal Agentziak (URA), Telefónica SAK, Red Eléctrica de España SAUK eta Nortegas Energía Distribución SAUK aldeko txostenak aurkeztu zituzten, eta baldintza batzuk ezarri zituzten. Txosten horiek enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, enpresa eskatzaileak horiekin ados zegoela adierazi zuen. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak txostena aurkeztu zuen, non adierazi zuen proiektatutako jarduketak bere eskumen-eremutik kanpo daudela, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen eremukoak baitira. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi zitzaion, eta hark horrekin ados zegoela erantzun zuen. Kontsultatutako gainerako administrazio publikoek, organismoek eta enpresek ez zioten erantzun proiektuaren aldeko edo aurkako eskaerari.

6.– Jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, 2024ko azaroaren 19an, honako hauei bidali zitzaizkien proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana: Bergara eta Elgetako udalak, Uraren Euskal Agentzia (URA), Telefónica, SA, Nortegas Energía Distribución, SAU, Enagas SA, Red Eléctrica de España, SAU, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia – GFA, Bide Azpiegituren Saila – GFA, Nekazaritza eta Lurralde Oreka Zuzendaritza Nagusia – GFA, Mendien eta Natura Ingurunearen Zuzendaritza Nagusia – GFA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza – EJGV, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza – EJGV, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza – EJGV, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza – EJGV, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza – EJGV, Kultura Ondarearen Zuzendaritza – EJGV, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza – EJGV, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza – EJGV, eta Ekologistak Martxan Gipuzkoa, Eguzki-Asociación Recreativa Eguzkizaleak, Seo Birdlife eta Itsas Enara Ornitologi Elkarte talde ekologistak, egoki iritzitako oharrak eta alegazioak eskatzeko. Eskaera hori 2025eko urtarrilaren 27an berretsi zen.

7.– Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanari dagokionez, kontsulten izapidean, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan ondorengo administrazio publikoen eta pertsona interesdunen txosten edo alegazioak jaso ziren, eta sustatzaileari bidali zitzaizkion, aintzat hartzeko eta erantzuteko:

– Kultura Ondarearen Zuzendaritza – EJGV. Aldeko txostena aurkeztu zuen, baldintza bat ezarri. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi zitzaion, eta harekin ados zegoela adierazi zuen.

– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza – EJGV. Proiektuaren jarduketek identifikatutako nekazaritza-erabilerekin lotutako ustiatzearen edo ustiatzeetan izango lituzketen eraginei buruzko informazioa zabaltzeko eskatu zuen. Halaber, hala badagokio, dagozkion prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak hartzea gomendatu zuen. Nekazaritza eta Basogintzaren LPSko (Balio Estrategiko Handiko azpikategoria) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala kategoriako lurzoruekin bat egiten duenez, nekazaritzaren arloan eskumena duen foru-organoaren txostena izan beharko litzatekeela ohartarazi zuen.

Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi zitzaion, eta hark adierazi zuen Ingurumen Inpaktuaren Azterlanaren 7.11.1.1 atalean proiektuak nekazaritza-ahalmenean duen eragina aztertzen dela, Sektoreko Eragina Ebaluatzeko Protokoloan (PEAS) adierazitakoarekin bat etorriz; hala ere, GeoEuskadi bisorean eskuragarri dagoen informazioaren arabera identifikatutako nekazaritza-erabileren gainean proiektuak sortzen dituen eraginei buruzko informazioa taula baten bidez zabaltzen da. Nekazaritzako ustiatzearen gaineko eragina nulua izango litzateke, eta soilik 63 m²-ko okupazio iraunkorra belardien eta larreen gainean, belardi baten berme berria dela eta. Bestalde, jakinarazi zuen berehala eskatzen zela nekazaritzaren arloan eskumena duen foru-organoaren txostena, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Lurralde Oreka Berdeko Departamentua – GFA. Adierazi zuen proiektua teknikoki bateragarria zela Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialarekin eta 177/2014 Dekretuarekin, eta nekazaritzaren sektore-inpaktua bateragarritzat eta intentsitate txikikotzat jotzen zela, betiere proposatutako prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak aplikatzen baziren. Azken puntuari dagokionez, esan behar da 193/2012 Dekretuak ezartzen duela hemen ezarritako kalte-ordainak ez duela eragozten beste betebeharrak batzuk betetzea edo ordezkatzeari; hau da, ez dituela ordeztzen desjabetzeen ondoriozko konpentsazioak eta kalte-ordainak. Hain zuzen ere, horiek lurren jabeak baldintzatzen dituzte, eta nekazariei ordaindu beharko zaizkie indarrean dauden erreferentziako unitate-balioen arabera.

Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi zitzaion, eta hark adierazi zuen ados zegoela txosten horrekin, ez baitu eragozpenik jartzen proiektua gauzatzeko. Era berean, aipatutako txostenari emandako erantzunaren zati gisa, txosten horretan jasotako 3.000 euroko kalte-ordaina emateko konpromisoa hartu zuen, balio estrategiko handiko lurzoruan sortutako eraginaren ondorioz.

– Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza – EJGV. Adierazi zuen ez zela espero proiektatutako esku-hartzeak eremuan dagoen arriskua larriagotuko zuenik, baina, lanak egiteko fasean eta proiektua ustiatzeko fasean, hura kontuan hartu beharko litzatekeela eta hura minimizatzeko neurri egokiak hartu beharko liratekeela, obretarako ezarritako prebentzio- eta zuzenketa-jardueren barruan. Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi zitzaion, eta hark horrekin ados zegoela erantzun zuen.

– Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza – EJGV. Lan-darearen gaineko eraginari dagokionez (mozketa eta inausketa), 34 eta 35 euskarrietarako aurreikusitako sarbideen trazadura berrikusi beharko litzatekeela adierazi zuen, bide berriak irekitzeak landaredi autoktonoaren azalera handi bati eragingo liokeelako. Era berean, adierazi zuen 1:2 proportzioko konpentsazio-proposamena egokitzen jotzen zela, baina garrantzitsua zela konpentsazio-proiektuak, GFAREN Mendi Zerbitzuaz gain, Natura Ondarearen Zerbitzuak ere balioestea. Konektibitate ekologikoari dagokionez, adierazi zuen IHren balorazioa eta hark proposatutako neurriak zuzenak zirela, eta ez zela aurreikusten proiektuaren inguruneke egungo konektibitate ekologikoko prozesuetan eragin nabarmenik izango zuenik.

Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi zitzaion, eta hark adierazi zuen, alde batetik, konpromisoa hartu zuela 34. eta 35. euskarrietarako sarbide berriak bilatzeko, eta, bestetik, linea ez zegoela behartuta abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuak, abifauna goi-tentsioko linea elektrikoetan talka egitearen eta elektrokutatzearen aurka babesteko neurriak ezartzen dituenak, agindutakora egokitzera, eta konpromisoa hartu zuela erreforma-proiektu honi dagokion ibilbide osoan talken eta elektrokuzioaren aurkako neurriak instalatzeko.

– Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia – GFA. Ingurumen-dokumentuak ingurune fisikoko planoak, paisaia-unitateak, intereseko habitatak, ingurumen-sintesiak eta abar bazituen ere, ez zuen grafikoki jasotzen proiektuak kultura-ondarean izango zuen eragina, eta, beraz, dokumentua ondarearen plano xehatuarekin osatzea gomendatzen zen, katalogatutako eta intereseko elementuak adierazita.

Txosten hori enpresa eskatzaileari helarazi ondoren, adierazitako zehaztapenaren arabera plano xehatua aurkeztu zuen. Era berean, jakinarazi zuen lehendik zegoen linea bat berritu behar zela, trazadura aldatu gabe, eta, beraz, ez zuela ondare-elementuetan eraginik izango, lehendik zeuden euskarrietan lan egingo baitzen. Ingurumen Inpaktuaren Azterlanean eranskin bat dago, euskarri berri bakarraren inguruan egindako ondare-azterketarekin.

8.– Jendaurreko erakustaldiaren barruan, ez zen proiektuaren aurkako alegazio-idazkirik aurkeztu.

9.– 2025eko urriaren 15ean, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2025eko irailaren 19ko Ebazpena argitaratu zen EHAAren (196. zk.). Ebazpen horren bidez, Abadiño-Azpeitia (27-50 euskarrien artean eta Abadiño-Azpeitia 1 Bergara TAra S/I) 132kV-ko linea elektrikoa, zirkuitu bikoitzekoa, gauzatzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin zen.

Ebazpen horretan, aipatutako proiektuaren IAA-ren aldeko adierazpena egin zen, eta proiektuaren baldintzak, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena babesteko jarraitu beharreko ingurumena zaintzeko programa ezarri ziren.

OINARRI JURIDIKOAK

1.– Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak (2024-12-10eko EHAA) ematen dion eskumena erabiliz.

2.– Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 39. artikuluan ezartzen duenez, energia elektrikoa banatzeko instalazioak martxan jartzeko, aldatzeko, eskualdatzeko eta behin betiko ixteko, aurretiazko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena beharko dute.

3.– Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak (2013ko abenduaren 11ko BOE) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 20/2021 Legeak (2021eko abenduaren 31ko EHAA) zehazten dute zein proiektu publiko edo pribatuk duten ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta (II.D eranskina).

4.– Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoan energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioak eta kontsumitzaileak konektatzeko hartu-neak, zuzeneko lineak eta instalazioak eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenaren prozedura.

5.– Energia elektrikoaren instalazioak garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak, V. kapituluko 2. atalean, energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazio elektrikoak onura publikokoak direla deklaratzeko desjabetze-prozedura definitzen du, instalazio horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko eta bide-zorra ezarri eta erabiltzeko.

6.– Espedientea izapidetzean, kontuan hartu eta bete dira administrazio-prozedura arautzen duten arauetan eta aipatutako legeetan aurreikusitako prozedura-betekizunak eta -izapideak.

7.– I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAU enpresa eskatzaileak behar bezala erantzun die aurkeztutako txostenei.

8.– Proiektuak betetzen ditu aplikatu beharreko segurtasun-araudietan jasotako eskakizun teknikoak.

Aipatutako lege-aginduak eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoak ikusita, Gipuzkoako jarduneko lurralde-ordezkariek honako hau

EBAZTEN DU:

Bat.– I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUri «Abadiño-Azpeitia 1 eta 2 zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko linea elektrikoa, 27- 50 euskarrien artean eta Abadiño-Azpeitia 1en Bergara TArako S/I»

instalazio elektrikoaren aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena ematea, Bergara eta Elgeta udalerrietan.

Bi.– Baimentzen den instalazio elektrikoa onura publikokoa dela deklaratzeko. Deklarazio horrek, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 56. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasunak okupatu beharra edo ukitutako eskubideak eskuratu beharra dakar, eta, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua ondo onartutako, lehenbailehen okupatu beharra, 53. artikulua ondo onartutakoekin.

Ebazpen hau 48/2020 Dekretuan xedatutakoaren eta honako baldintza orokor hauen arabera ematen da:

1.– Onartutako proiektuaren arabera egin beharko dira obrak, hala badagokio, eskatzen eta baimentzen diren aldaketekin.

2.– Zerbitzuan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen honen datatik aurrera.

3.– Instalazioen titularrak lanen amaieraren berri emango dio Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari, behin betiko onesteko eta ustiatzeko eta zerbitzuan jartzeko baimena emateko.

4.– Ebazpen hau ematen da obrak egiteko beharrezkoak diren udal edo probintzien esku-menpeko baimen edo lizentzien eta bestelako kalteetan izan gabe, eta horiek eskuratzeko betebeharretik ez du salbuesten eskatzailea. Halaber, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubidea salbu utzita ematen da.

5.– Proiektua gauzatzeak honako hauek bete beharko ditu: proiektuari dagozkion baldintzak, neurri babesle eta zuzentzaileak, eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2025eko irailaren 19an egindako eta 2025eko urriaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako ingurumena zaintzeko programa. Era berean, kontsulta-fasean administrazioek, organismoek eta zerbitzu-enpresek ezarritako baldintza teknikoak bete beharko ditu, sustatzaileak horiekiko adostasuna adierazi baitzuen.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Deskarbonizazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Donostia, 2025eko abenduaren 19a.

(Zerbitzu-eginkizunen behin-behineko esleipenari buruzko 2025-05-26ko Ebazpenarekin bat etorritik).

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako jarduneko lurralde-ordezkaria, ANTON ARRIETA INSAUSTI.